



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

99. INFORMAZIO BULETINA

> 2015ko Apirila



GIPUZKOA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2015ko Apirila

NABARMENDU BEHARREKOA

> eKOP mugaz gaindiko enpresa-ekimen onenen sariak banatu dituzte

Apirilaren 15ean Hendaian eKop Sarien, mugaz gaindiko enpresa-ekimen onenei emandako sarien, banaketa-ekitaldiaren hirugarren edizioa izan zen.

Mugaz haraindiko BIHARTEAN, CCI erakundeak eta Baiona-Donostia Euskal Eurohiriaren garapenerako mugaz gaindiko Agentziak sustatzen du saria eta lankidetzaren arloan, eragin ekonomikoan eta mugaz gaindiko izaeran eredugarritasun-irizpideak betetzen dituzten enpresa-ekimenak saritzen ditu.

Edizio honetan, sari nagusia ALGÓN-SOKOAK jaso du, produktu industrial berri baten lankidetzazko garapenarengatik, zehazki aulkien bilduma berri bategatik. Era berean, accesit banarekin saritu dituzte BASKLINK plataforma digitala, izaera berritzaileagatik eta Eurohiriaren lurralde osoan eskaintza turistikoa bakarrik eskaintzeko gaitasunagatik, eta INERZI, Industria eta Eraikuntzaren sektoreetan espezializatutako lau ingeniartzaren aldetik egitura komuna sortzeagatik.

Sariak banatu aurretik, "Mugaz gaindiko enplegua, enpresentzako abantaila" hitzaldia eskaini zuen Silvia Muller-Wolffek, Arbeits-Agentur agentziako arduradun eta Rhin Garaiaren Hiru Naszioko eskualdeko mugaz gaindiko EURES-T erakundeko kideak. Hitzaldi horren ostean, mahai-ingurua egin zuten; bertan, gure hurbileneko lurraldeari buruzko ikuspegia eman zuten. Bertan izan ziren Donibane Lohitzuneko Pôle emploi agentziako Martine Vedrenne eta Lanbideko Lan Aktibazioaren zuzendari Gotzone Sagardui.

Informazio gehiago:

<http://www.bihartean.com/secciones/actualidad/noticias/detalle-noticia.php?id=92&lang=eu>



> 2015ko Apirila



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



> **Akitania-Euskadi Euroeskualdean kultura, hezkuntza, hizkuntza aniztasuna, kirola eta gazteriaren arloko proiektuak garatzeko deialdi berria**

Akitania-Euskadi Euroeskualdeak kultura, hezkuntza, hizkuntza aniztasun, kirola eta gazteriaren arloetan euroeskualdeen ekimenak finantzatzeko deialdia argitaratu du. Deialdi horretarako bideratutako aurrekontua 250.000 eurokoa da.

Hautagaitzak Euroeskualdearen web-atariaren bidez egin behar dira, eta maiatzaren 19an amaitzen da aurkezteko epea.

Bestalde, martxoan Akitania-Euskadi Euroeskualdeak 2015eko lehen batzarra egin zuen. Topaketa Busturiako (Bizkaia) Madariaga Dorrean egin zuten eta 2014ko jardueren balantzea onartu zuten. Ondoren, 2015erako Euroeskualdearen urteko helburuak eztabaidatu eta onartu zituzten 2014-2020 Euroeskualdearen Plan Estrategikoaren barruan.

Informazio gehiago:

<http://www.aquitaine-euskadi.eu/>



> Tokiko Erakundeetarako Eskualdearen Garapenerako Europako Funtsen deialdia irailean irekiko dela aurrez ikusi dute

Europako Batzordea eta Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioko Komunitateko Funtsen Zuzendaritza Nagusia Hazkunde Iraunkorraren Programa Operatiboaren xehetasunak zehazten ari dira; programa horretan sartzen da 2014-2020 aldian FEDER Funtsen tokiko zatia.

Hazkunde Iraunkorrari buruzko Programa Operatiboak tokiko zati bat biltzen du Tokiko Erakundeek egindako proiektuak kofinantzatzeko; 1.500 milioi euro inguru ditu horretarako. Programa Operatibo hori ekainean onartuko dela aurrez ikusi dute; beraz, laguntzen deialdia uda ondoren irekita gera liteke, aurreikuspenen arabera, 2015eko irailean.

Hazkunde Iraunkorrari buruzko Programa Operatiboaren tokiko zatia bi esleipenetan banatzen da:

- Proiektu bereziak, Karbono baxuko ekonomiari buruzko gaikako helburuan oinarrituta. Horri 500 milioi euro inguru dagozkie. Eraginkortasun energetikoen, energia berriztagarrien eta mugikortasun iraunkorraren proiektuak izan beharko dute. Deialdian eskatuko dute Tokiko Erakundeak Hiriko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (HMIP) izatea.
- Hiriaren Garapen Iraunkorrean txertatutako ekintzak, 950 milioi euro inguru. Aurkeztutako proiektuek hainbat arazo landu beharko dituzte aldi berean (sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak) hiri-eremu funtzional baterako, eta zeharkako irtenbideak proposatu beharko dituzte, Hiriaren Garapen Iraunkorreko Estrategia Integratu baten testuinguruan.

Informazio gehiago:

<http://www.femp.es/site/fondoseuropeos>



KOHESIO-POLITIKA

> EGEF, EGIF eta Kohesio Funtsen Programa Operatiboak 2007-2013 ixteko jarraibideak onartuta

2015eko apirilaren 30ean, Europako Batzordeak onartu egin ditu 2007-2013 aldian Eskualdeko Garapenaren Europako Funtsaren (EGEF), Europako Gizarte Funtsaren (EGIF) eta Kohesio Funtsaren laguntza jasotzeko martxan jarritako Programa Operatiboen itxierari buruzko jarraibideak.

Batasunak kitzatzeke dituen aurrekontu-konpromisoen finantza arloko likidazioari dagokio Programen itxiera. Horretarako, Programa bakoitzaren eskuduntza duen Agintaritzari azken saldoa ordainduko dio edo Batzordeak kide den Estatuari oker ordaindutako zenbatekoak berreskuratuko ditu, eta azken saldo oro liberatuko du. Dena den, Programen itxierak ez du aurrez ikusten finantza-zuzenketak ezartzeko Batzordeak duen eskubidea.

Bestalde, Batzordeak, kide diren Estatuekin lankidetzan estuan, iragarri du orientabidea eskainiko duela hainbat prestakuntza-saio eta mintegiren bidez. Saio horiek itxiera egin aurretik antolatuko dira.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/guidelines/closure_2007_2013/annexe_guidelines_closure_20072013_es.pdf

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/guidelines/closure_2007_2013/adj_guidelines_closure_20072013_es.pdf



> Euskal Eurohiriaren Gazte Foroak bere emaitzak aurkeztu ditu

Eurohiriaren I. Gazte Foroaren helburua plataforma izatea da, Eurohiriko gazteek, Eurohiriaren beraren inguruko gogoeta egiteaz gain, mugaz gaindiko harremanen, mugak eskaintzen dituen aukeren eta zailtasunen inguruan proposamenak egin ditzaten eta irudikatzen duten eta nahi duten metropoliaren eraikuntzarako proposamenak egin ditzaten. Edonola ere, mugaren alde bateko zein besteko gazteen harremanak sustatzeko aukera da, esperientziak ezagutzeko eta sustatzeko, eta azken batean, Eurohiriko gazteei ahotsa emateko aukera. Foroa Eusko Ikaskuntzak bultzatutako ekimena da.

Azken hilabeteetan zehar, Ipar eta Hego Euskal Herriko gazte talde batek Foro honen testuinguruan gogoeta egin du eta garatutako prozesuaren emaitzak Irungo Ficoban egindako ekitaldian aurkeztu zituzten apirilaren 16an.

Aurkezpen-ekitaldian, eta proiektuaren metodologia eta helburuei buruzko azalpen laburra egin ostean, egindako dokumentua aurkeztu dute. Txosten horrek Euskal Eurohiriari buruz parte-hartzaileek egindako diagnostikoa jasotzen du, baita egindako bileretan landutako gai ugari ere: enpresa-lankidetzeta eta mugaz gaindiko enplegua, hizkuntza aniztasuna eta komunikabideak, kultura-lankidetzeta eta lurraldearen kudeaketa. Azkenik, Eurohiriaren agente ugari edo gazteek eurek egin ditzaketen proiektu zehatzak jaso dira.

Informazio gehiago:

http://www.eusko-ikaskuntza.eus/upload/docs/Eurohiria2015_eu.pdf



> Gipuzkoako Foru Aldundiak Europako Parlamentuan egindako “Zerga-iruzurretik zerga-justiziara” hitzaldian parte hartu du

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Helena Franco Ogasun Diputatuaren bidez, “Zerga-iruzurretik zerga-justiziara” nazioarteko hitzaldian parte hartu du. Hitzaldia apirilaren 21ean egin zen Europako Parlamentuan GUE/NGLk, Europako Ezker Bateratuaren Talde Konfederalak, antolatuta. Foru-diputatuarekin batera, Txema Mendibil, Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboko presidentea (FAEA), ere izan da jardunaldian.

Helena Francok Bruselan Gipuzkoako Aberastasun eta Fortuna Handien gaineko zergari buruzko xehetasunak eskaini ditu. Aberastasunaren gaineko zergaren balio politikoa azaldu du eta 2013tik lurraldean indarrean den zergaren bidez eskuratutako emaitza nagusiak aztertu ditu. Ogasun-diputatuak herrialdeetan aberastasunaren gaineko zerga berriz ezartzearen alde egin du eta aldi berean nazioarte mailan zergak bateratzeko mekanismoak ezartzearen alde, justizia sozialari dagokionez aurrera egin ahal izateko.

Bestalde, FAEAko presidenteak, Txema Mendibilek, European aberastasunaren gaineko zergetarako dauden irizpide orokorrak azaldu ditu.

Informazio gehiago:

<http://www.guengl.eu/news/article/events/tax-justice-fighting-corporate-tax-dumping-taxing-wealth.-21-april>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Europako Batzordeak Europako ETE-etarako finantzaketa-plana aurkeztu du Euskadin

Europako Batzordeak Europako ETE-etara bideratutako finantzaketa-tresna multzoa jarri du martxan; hala, 300.000 milioi euroko inbertsioa aktibatu ahal izango du.

Euskal enpresei bultzatutako lehiakortasunari laguntzeko tresna berri hauek ezagutarazteko, SPRIk eta Europako Batzordearen aurreko Eusko Jaurlaritzaren Bruselako ordezkariak apirila erdialdean aurkezpen-jardunaldia antolatu dute.

Jardunaldian, Batzordeko Zuzendaritza Nagusietako arduradunek Europa 2020 Estrategiaren testuinguruan diseinatutako ekimenetako bakoitza aurkeztu dute, hala nola Juncker ekimena edo Horizon2020 programaren alderdi espezifikoak. Beste finantza-tresna batzuk ere aurkeztu dituzte, hala nola INNOVIN eta COSME.

Bestalde, Eusko inguruneke euskal industrialdea bereizten duten lehiakortasuneko balioak sustatzeko Jaurlaritzak diseinatutako estrategiak, RIS3 gakoak, azaldu ditu Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasunaren sailburuak.

Informazio gehiago:

<http://www.spri.eus>



> **Teknologiaren transferentziarako 33 akordio eta 4.000 profesionalak baino gehiagok parte hartu dute Basque Enterprise Europe Network Partzuergoak egindako jardueretan**

Europako Batzordeak, Enpresa eta Industriako Zuzendaritza Nagusitik, “*Enterprise Europe Network*” sarea jarri du martxan, enpresari euskarria eta aholkularitza emateko, bereziki ETE-ei. Sare horrek Europa mailan negozio-aukera eta politiken inguruko informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen ditu, baita laguntza ere gardentasun teknologikoaren prozesuetan eta I+G+b finantzaketako Europako programetarako sarbidean.

SPRI, Bizkaiko Foru Aldundia, Innobasque eta hiru merkataritza-ganberek (Arabakoa, Bilbokoa eta Gipuzkoako) osatutako partzuergo baten bidez dago sarea Euskadin.

Basque Enterprise Europe Network partzuergoaren koordinatzailea SPRI da, Europa enpresengana gerturatzen du eta euskal ETE-ek funtsen zati bat eskuratzea ahalbidetzen du.

2008an Basque Enterprise Europe Network partzuergoa sortu zenetik, euskal enpresek teknologia transferitzeko 33 akordio sinatu dituzte eta 4.000 profesionalak baino gehiagok hartu dute parte EENen informazio- eta aholkularitza-jardueretan.

2015 urteari dagokionez, 5 jardunaldi antolatu dira eta horietan 400 lagun inguruk hartu dute parte. Era berean, EEN Basque EENen sektoreko taldeen hiru bilera erakarri ditu Euskadira. Martxoan ImagineNano 2015en testuinguruan garatutako Enpresa Topaketak antolatu eta koordinatu dira. Horri esker, sektoreko euskal enpresen eta Bilboko hitzordu horretara joan diren 21 herrialdeetako 98 partaideren aldebiko 300 bilera egin ahal izan dira.

Informazio gehiago:

<http://www.eenasque.net/>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Kohesio Politika zabaltzen lagundu (Panorama aldizkaria, 52. zk.)

Eskualdeko Politikaren Zuzendaritzaren Panorama aldizkariaren udaberriko edizioaren artikulua nagusiek Batzordearen asmoen laburpena biltzen dute, hain zuzen ere, inbertsio adimentsuagoak egiteko eta hori modu eraginkorragoan aplikatzeko asmoen inguruan. Lehen artikulua aplikazio hoberako lantaldearen zereginak deskribatzen ditu; horren helburua batez bestekoa baino xurgatze-tasa baxuagoak dituzten herrialdeei laguntzea da. Aldiz, bigarren artikulua "FI-COMPASS" aholkularitza-zerbitzu berria martxan jartzearen ingurukoa da, eta Juncker presidentearen Inbertsio Planean nola txertatzen den aipatzen du.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag52/mag52_en.pdf

> 2007-2013 Kohesio Politikaren Programa Operatiboen ex-post ebaluazioa (DG Regio)

Eskualdeko Garapenaren Europako Funtsak (EGEF) eta Kohesio Funtsak (KF) 2007-2013 programazio-aldian konfinantzatutako 320 Programa Operatiboen ex-post ebaluazioaren inguruko dokumentazioa.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/es/policy/evaluations/ec/2007-2013/



> 2015ko Apirila



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



Unión Europea Una manera de hacer Europa

> **COSME, enpresa ertain eta txikietarako Europako programa (Europako Batzordea)**

COSME enpresa eta ETE-en lehiakortasunerako EBren programa da. 2014tik 2020ra dago funtzionamenduan, 2.300 milioi euroko aurrekontuarekin. COSMEk ETE-ei laguntza ematen die, finantzaketarako sarbidea erraztuta; nazioartekotzea eta merkatuetarako sarbidea babestuta; lehiakortasunaren aldeko ingurunea sortuta, eta ekintzailetasunaren kultura sustatuta.

COSME Europarako "Small Business Act" aplikatzen duen programa da; izan ere, bertan, Europar Batasuneko ekonomian ETE-ek rol garrantzitsua dute.

Informazio gehiago:

<http://www.eenbasque.net/images/stories/noticias/cosme-leaflet-es.pdf>